

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



PASCUAL MARIN. MARIN FUNTSA. KUTXATEKA.

REALAREN OSPAKIZUNAK, 1928AN

Argazki hau 1928an atera zen, Donostiako erdigunean, Peñafiorida kalean. Kale horretako 4. zenbakian dagoen geltokian tranbia bat geldituta dago. Irudiak ospakizun bat zela iradokitzen du; izan ere, Realeko zaleak, Donostiako taldeko jokalarik batzuekin batera, Pascual Marinen kamerari begira daude, besteak beste, Jesus Izagirre, Amadeo Labarta eta Paco Bienzobas. Urte horretan, Realak Kopako finalera iritsi zen, Bartzelonaren aurka neurtuta. Bi taldeek, euskaldunak eta katalanak, bi aldiz berdindu zuten, eta, ondorioz, hilabete geroago hirugarren partida bat jokatu behar izan zuten, Realak galdu egin zuena. Donostiako taldeko bederatzi jokalarik urte horretan Amsterdamen ospatutako Joko Olinpikoetan hartu zuten parte, eta horregatik atzeratu zen hirugarren partida hori.